



## ERABAKIA, KIROL JUSTIZIAKO EUSKAL BATZORDEARENA, HERNANI FUTBOL TALDEAK GIPUZKOAKO FUTBOL FEDERAZIOAREN KIROL DIZIPLINA ETA LEHIAKETAKO BATZORDEAREN 2014ko ABENDUAREN 30eko EBAZPENAREN AURKA JARRITAKO ERREKURTSOA EZESTEN DUENA

---

Espediente-zenbakia: 2/2015

### AURREKARIAK

**Lehenengoa**.- 2015eko urtarrilaren 12an, Hernani Kirol Klubeko infantilen mailako nesken taldeko entrenatzailearen idazki bat sartu zen Kirol Justiziako Euskal Batzordearen Idazkaritzan, Gipuzkoako Futbol Federazioaren Kirol Diziplina eta Lehiaketako Lurralde Batzordearen 2014ko abenduaren 30eko Ebazpenaren aurkako errekurtsoa aurkezteko; Ebazpen horren bitartez, honako erabaki hauek hartu ziren: a) Hernani "A" Altzueta taldeak Antigua Luberri B.G.E. "A" taldearen aurka 2014ko abenduaren 10ean jokaturako partida 0-3 galdutzat ematea; b) Hernani "B" Zelaia taldeak Luberri B.G.E. "B" taldearen aurka 2014ko abenduaren 11n jokaturako partida 0-3 galdutzat ematea; eta c) Hernani "A" Altzueta taldeak Antigua Luberri B.G.E. taldearen aurka 2014ko abenduaren 14an jokaturako partida 0-3 galdutzat ematea. Partida guztiak eskola-kiroleko F-8 infantilen mailako nesken futbol-txapelketakoak dira, eta partida horietan guztietan erabaki hori hartu zen, jokalarien zerrenda bidegabeba zelako, taldekide guztiek ez baitzuten zegokien lizentzia (15.G artikulua, 17.2 H artikuluari dagokionez).

**Bigarrena**.- Kirol Justiziako Euskal Batzordeak errekurtsu hori izapidetzea onartu zuen eta Gipuzkoako Futbol Federazioari espedientea



eskatu zion; era berean, alegazio-izapidea gauzatzeko eta, hala nahi izanez gero, egokitzen jotako frogak aurkezteko aukera eman zion.

Halaber, Antigua Luberri B.G.E. taldeko ordezkariari helarazi zitzaizkien idazkia, egoki irizitako alegazioak egin zitzaizkien, baina ez dute inolako adierazpenik egin.

**Hirugarrena**.- 2015eko otsailaren 2an, Gipuzkoako Futbol Federazioak igorritako espedienteak jaso genuen, baita Kirol Diziplina eta Lehiaketako Lurralde Batzordeak egindako txostena ere.

### **ZUZENBIDEKO OINARRIAK**

**Lehenengoa**.- Kirol Justiziako Euskal Batzordeak du errekurso hau aztertzeke eskumena, hala xedatzen baitute ekainaren 11ko 14/1998 Legeak, Euskal Autonomia Erkidegoko kirolari buruzkoak, 138.a) artikuluan, eta urriaren 18ko 310/2005 Dekretuak, Kirol Justiziako Euskal Batzordea arautzen duenak, 3.a) artikuluan.

Era berean, Eskolako kirolari buruzko uztailearen 1eko 125/2008 Dekretuaren 22. artikulua ere aipatu behar dugu; izan ere, artikulua horren arabera, honako hauei dagokie kirol-arloko diziplina-ahalmena erabiltzea: lehen instantzian, parte hartzaileen gaineko eskolako kirolaren organo eskudunei, eta bigarren instantzian, Eskolako Kirolaren Euskal Batzordeari; eta aurreikuspen hori berretsi egiten da Eskola-kiroleko lehiaketen diziplina-araubideari buruzko uztailearen 23ko 391/2013 Dekretuaren 4.1 artikuluan.

**Bigarrena**.- Errekurtsoa eragin zuten gertakariak Hernani "A" Altzueta eta Hernani "B" Zelaia futbol-taldeen emakumezko partidetan gertatu ziren; hurrenez hurren, Antigua Luberri B.G.E. eta Luberri B.G.E. "B" taldeen aurka jokatu zuten, 2014ko abenduaren 10ean, 11n eta 14an, eta partida guztiak Futbol-8 infantilen mailakoak dira, eskola-kiroleko nesken mailan.



Jasota dagoenez, partida horietan jokatu zuten zenbait jokalarik ez zuen eskola-kiroleko lizentziarik, edo Hernani "B" Zelaia taldeari zegokion lizentzia zuten hainbat jokalaria Hernani "A" Alzueta taldearen zerrendan sartu ziren.

Gertakari horiek direla-eta, Gipuzkoako Federazioaren Kirol Diziplina eta Lehiaketako Lurralde Batzordeak partida horiek galdutzat ematea erabaki zuen 2014ko abenduaren 30ean, taldekideek ez zutelako zegokien lizentziarik — Eskola-kiroleko lehiaketen diziplina-araubideari buruzko uztailaren 23ko 391/2013 Dekretuaren 15.G artikulua, 17.2 H artikuluari dagokionez—.

Zigor horien aurka aurkeztutako errekurtsioan, Hernani taldeko entrenatzaileak hainbat alegazio egin ditu baina ez du lortu gertakarien errealitatea indargabetzea, erantzukizuna bere gain hartzen baitu zera aipatzen duenean, zegokien lizentziarik ez zuten jokalarien parte-hartzearekin lotutako alderdien berririk ez zuela.

Halaber, eta bere nahiari dagokionez, "beste ebazpen bat" eman behar dela baino ez dio errekurtsogileak, jazotako gertakariak asmo txarrik gabekoak izan diren aldetik.

Aurkeztutako errekurtsioa ezin dugu baietsi, Gipuzkoako Federazioaren Kirol Diziplina eta Lehiaketako Lurralde Batzordeak araudian aurreikusitako zigorrak aplikatzea baino ez baitu egin deskribatutako arau-haustek direla-eta; beraz, ezarritako zigorra ezin da neurritz kanpokotzat hartu, esan bezala, Eskola-kiroleko lehiaketen diziplina-araubideari buruzko uztailaren 23ko 391/2013 Dekretuan aurreikusitakoarekin bat datorren aldetik.

Horren guztiaren ondorioz, Kirol Justiziako Euskal Batzordeak, honako hau

### **ERABAKI DU:**



Hernaniko Kirol Klubak Gipuzkoako Futbol Federazioaren Kirol Diziplina eta Lehiaketako Lurralde Batzordearen 2014ko abenduaren 30eko Ebazpenaren aurka jarritako errekurtoa ezestea; Ebazpen horren bitartez, honako erabaki hauek hartu ziren: a) Hernani "A" Altzuetak taldeak Antigua Luberri B.G.E. "A" taldearen aurka 2014ko abenduaren 10ean jokaturako partida 0-3 galdutzat ematea; b) Hernani "B" Zelaia taldeak Luberri B.G.E. "B" taldearen aurka 2014ko abenduaren 11n jokaturako partida 0-3 galdutzat ematea; eta c) Hernani "A" Altzuetak taldeak Antigua Luberri B.G.E. taldearen aurka 2014ko abenduaren 14an jokaturako partida 0-3 galdutzat ematea.

Erabaki honek administrazio-bidea amaitzen du. Beraz, erabakiaren aurka aukerako berraztertze errekurtoa aurkeztu ahal izango dute interesdunek Kirol Justiziako Euskal Batzordean hilabeteko epean, erabakia jakinarazi eta hurrengo egunetik aurrera, edo bestela administrazioarekiko auzi-errekurtoa aurkez dezakete Donostiako Administrazioarekiko Auzietarako Epaitegian bi hilabeteko epean, erabakia jakinarazi eta hurrengo egunetik aurrera, halaxe xedatzen du-eta Administrazioarekiko auzien jurisdikzioari buruzko uztailaren 13ko 29/1998 Legeak.

Vitoria-Gasteiz, 2015eko otsailaren 9a

Agurtzane Zangitu Osa

**KIROL JUSTIZIAKO EUSKAL BATZORDEKO PRESIDENTEA**